



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

2018ko UZTAILAREN 27an EGINIKO EZ OHIKO UDAL BATZAREN AKTA

2018ko uztailaren 27an, Asteasuko Udaletxeko Idazkaritzako bilera gelan, arratsaldeko 19:05 orduetan, Maria Pilar Legarra Cortajarena Alkate anderearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren Zinegotziak bildu ziren:

ALKATEA: Maria Pilar Legarra Cortajarena (Asteasu Batuz, AB)

ZINEGOTZIAK: Jose Ramon Ayerza Sarasua (Asteasu Batuz, AB)
Maria Pilar Iturbe Urdangarin (Asteasu Batuz, AB)
Haritz Mugika Lasa (Asteasu Batuz, AB)
Aitor Usandizaga Izaguirre (Asteasu Batuz, AB)
Antonio Elicegui Orbegozo (Asteasu Batuz, AB)

IDAZKARIA: Jon Gil Beltza.

Ezin direla etorri aurretik adierazi dute: Joseba Txapartegi Nieve (Asteasu Batuz, AB), Luke Uribe-Etxebarria Apalategi (EAJ/PNV).

Alkate andreak, goian adierazitako orduan, irekitzat ematen du Udal Osoko Bilkura:

GAI ZERREDA:

- 1. Lege Zaharren enparantzaren Urbanizazio Lanak: kontratazio-espeditatea onestea**
- 2. Asteasuko Udaleko langileen ordainsariak: %1,75eko igoera onestea**

.../...

LEHENENGO PUNTUA.

- 1. Lege Zaharren enparantzaren Urbanizazio Lanak: kontratazio-espeditatea onestea**

Alkate andreak presazko proposamena egin du, Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazioa Informazio Batzordeak aurretik irizpena eman ez duelarik.

Udalbatzarrak, 2018ko martxoaren 13an eginiko ez ohiko bilkuran, Lege Zaharren enparantzaren urbanizazioaren oinarritzako proiektua onetsi zuen, Soroa Arquitectos, S.L.P.k 2018ko otsailean idatzita.

Horrekin zuzenean lotuta, Udalak urtarrilaren 18ko 13 zenbakia duen EHAAn argitaratutako Eusko Jaurlaritzako diru-laguntzak eskatu zituen.

Azkenean, 2018ko uztailaren 16ko Landaren eta Itsasertzaren Garepeneko eta Europar Politiketako Zuzendariaren Ebazpenaren bidez, aipatu diru-laguntza eman zaio Asteasuko Udalari; Udalak horren berri izan du 2018ko uztailaren 23an jasotako komunikazioaren bidez.

A.F.A.ren 82.3 artikularekin bat, Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 6 (Legarra, Ayerza, Iturbe, Mugika, Usandizaga, Elicegui)
Kontrako botuak: 0
Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak proposamena gai-zerrendan sartzea berretsi du.

Proposamena:

Udalak Lege Zaharren enparantzaren urbanizazioaren egikaritze-proiektua prestatu du, Soroa Arquitectos, S.L.P.k 2018ko ekainean idatzita.

Egikaritze-Proiektuaren xedea da Asteasuko Udaleko Lege Zaharren Enparantza izena duen plazaren berrurbanizazio lanen baldintzak finkatzea.

Halaber, urbanizazioa plazaren inguruan dagoen kale Berria izeneko errepidea jasoko du.

Egikaritzea bi fasetan banatuko da; hauek izango dira fase horiek:

1. Fasea. Beharrezko diren lan guztiak egingo dira, zoladura-amaiera, hiri-altzariak, eta abar izan ezik.

2. Fasea. Hiri-altzariak, argiteri-publikoa, eta abar instalatuko dira.

Udalak kreditu nahikoa eta egokia du kontratua gauzatzeak eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoei aurre egiteko, aurrekontuko ondoko partidan: 1.0000.601.150.00.01.2018

Espedientean erreferentziazko kontratazio espedientea habian jartzeko beharra dagoela justifikatzen duen Memoria jaso da, non adierazi da haren xede eta edukia



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

egokiak direla udaleko helburuak betetzeko; halaber, beharrezkoak diren txosten teknikoak eta txosten juridikoa jasotzen dira.

Idazkariak hitza hartu du: Administrazio Baldintza Agiri Partikularren laburpena egin du, eta atal nagusiak azaldu ditu; horren harira, eta proposamenak aurkezteko epeari dagokionez, proposatu du legez ezarritako gutxieneko 20 naturaleko epea 26 egun naturaleko epean ezartzea, izan ere, diru-laguntza jaso eta gero egin behar den deialdiaren garaia ez da egokiena proposamenak aurkezteko; abuztuan egingo da deialdia, enpresa askok oporrak egiten dituzte, eta beste askok gutxienezko zerbitzuak mantentzen dituzte; hori dela eta, deialdiaren azterketa eta proposamenak aurkezteko epea luzeagoa izatea proposatu du. Proposamenak aurkezteko formari dagokionez (paperean eta ez legez ezarritako forma elektronikoa), berak egin duen legetxostenean jaso duen adierazpena azaldu du.

Ayerza jaunak hitza hartu du: azken adierazpen horri dagokionez, gaia aztertu egin dute Asteasu Batuzeko taldean, eta ulertu dute oraindik ere enpresa asko ez daudela prest lizitazio elektronikoa betetzeko, izan ere, ez dituzte bere baliabideak egokitzeko denbora edo aukerarik izan; egoera horrek kontra egiten dio une honetan lizitazio publiko batek bermatu behar duen gardentasun eta zabalkundeari eta, horregatik, proposamenak paperean aurkezteko alde daude.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 6 (Legarra, Ayerza, Iturbe, Mugika, Usandizaga, Elicegui)
Kontrako botuak: 0
Abstentzioak: 0

Gauzak horrela, eta espedientean jasota dauden dokumentuak ikusirik, eta bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak, bertaratutako kideen aho batez,

ERABAKI DU

LEHENA. Onestea Lege Zaharren enparantzaren urbanizazioaren egikaritze-proiektua, Soroa Arquitectos, S.L.P.k 2018ko ekainean idatzita.

BIGARRENA. Asteasuko Lege Zaharren Enparantzaren berrurbanizazio lanak egiteko xedea duen jardunbide irekia erraztuaren bidez esleitzeko kontratazio-espedientea onartzea.

HIRUGARRENA. Kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria onartzea.

LAUGARRENA. Kontratu horri dagokion gastua onestea; horren gehienezko prezioa 801.317,64 eurokoa izango da, horietatik kontratuaren printzipalari 662.245,98 euro dagozkio eta 139.071,66 euro %21ko BEZari.

Gastua honako aurrekontu-aplikazioari lotuko zaio: 11 00 601 150 00 01. 2018

BOSGARRENA. Kontratazio jardunbideari hasiera ematea eta dagokion iragarkia argitaratzea Udaleko Kontratatzailearen Profilean, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Kontratatzailearen Profilean integratua.

BIGARREN PUNTUA.

Asteasuko Udaleko langileen ordainsariak: %1,75eko igoera onestea

Alkate andreak presazko proposamena egin du, Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazioa Informazio Batzordeak aurretik irizpena eman ez duelarik.

2018-07-04an Estatuaren 2018ko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legea argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean.

2018ko uztailaren 13an EUDELEk komunikazioa igorri zion Udalari, aipatu legean jasotako soldata igoerak aplikatzeko gomendio eginik, baina baldintzatuta oraindik ere onartu gabe zegoen Estatuko erabakiari.

2018ko uztailaren 20an EUDELEk bigarren komunikazioa igorri dio Udalari, aurreko komunikazioari jarraipen gisa, Estatuko erabakiaren berri emanez.

Aipatu Legean jasotako soldata igoerak ahalik eta azkarren aplikatzeko asmoarekin, Udalbatzarrari proposamena luzatzen zaio une honetan, aurretik irizpena eman gabe.

A.F.A.ren 82.3 artikuluekin bat, Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 6 (Legarra, Ayerza, Iturbe, Mugika, Usandizaga, Elicegui)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak proposamena gai-zerrendan sartzea berretsi du.

Proposamena:

UDALHITZ Negoziatio Mahaiari eta negoziatio kolektiboari dagokienez, 2018-04-25eko zirkularrean jakinarazi zuenez, EUDELEk eta sindikatuek alde biko bilerak egin



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

ondoren argi ikusi zen, Estatu osoan lortutako akordio berriak aintzat hartuta, aukera berriak izan zirela negoziazio kolektiboaren esparruan.

Estatu osoko akordio horiek dagokien araudira eraman dira, eta, 2018ko ordainsarien igoerari dagokionez, 2018-07-04an Estatuaren 2018ko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legea argitaratu zen Estatuako Aldizkari Ofizialean; arau horrek aukera ematen du neurriak hartu, eta gure administrazio publikoko langileen ordainsaria igotzeko.

Hain zuzen, Lege horren 18.Bi artikulua hau xedatu du:

“18.Bi artikulua.

2018. urtean, sektore publikoko langileen ordainsarien igoera globala ez da inola ere izango 2017ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariak baino %1,5 handiagoa, konparatutako bi denboraldien homogeneotasunari dagokionez, hala langileei begira, nola antzinasunari begira.

Horrez gain, prezio egonkorreko Barne Produktu Gordinaren (BPGd) igoera 2017an %3,1era iristen bada edo ehuneko hori gainditzen badu, 2018ko uztailaren 1etik aurrera beste igoera bat egongo da ordainsarian, hain zuzen, 0,25ekoa.

Idatz-zati honetan xedatutakoari begira, BPGd-ren igoeran, Estatistikako Institutu Nazionalak (INEk) argitaratzen duen urteko BPGd-ren zenbatespenaren aurrerapena hartuko da kontuan. INEk BPGd-ren aurrerapena argitaratu ondoren, enplegu publikoa eta lan-baldintzak hobetzeko 2018ko martxoaren 9ko Akordioaren Jarraipen Batzordeari jakinaraziko zaio, eta, hala behar bada, igoera ezartzea onetsiko da, Ministroen Kontseiluak hartutako akordioaren bidez. Akordio hori autonomia-erkidegoei, hiri autonomoei eta Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioari bidaliko zaie.

Gainera, soldata-masaren %0,2ko igoera gehigarria baimendu ahal izango da, besteak beste, produktibitatea edo efizientzia hobetzeko planak edo proiektuak abiarazteko, funtzio berdinsuak dituzten lanpostuen arteko berariazko osagarriak berraztertzeke, lanpostu-mailako osagarriak homologatzeko edo pentsio-planei ekarpena egiteko. Administrazioetan eta artikulua honetan definitutakoaren arabera 2017ko ekitaldian aurrekontuko superabita duten sektore publikoko gainerako erakundeetan, igoera gehigarri hori %0,3koa izan daiteke.”

Artikuluak hitzez hitz esaten duena ikusita eta egin daitezkeen interpretazioak argitzeko, EUDELeK egokitzen du GOMENDIO hau egitea EAEko udalei:

- Aipatutako 18.Bi artikulua leheneko paragrafoari dagokionez, 2018-01-01etik aurrera, langileen ordainsariak legeak baimentzen duen gehiena igotzea, hau da, %1,5, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta.

- Bestetik, 18.Bi artikuluaaren bigarren eta hirugarren paragrafoei dagokienez, %0,25eko soldata-igoera gehigarria jartzea, 2018-07-01etik aurrera eragina izan dezan, administrazio publikoko enplegatuei ordaintzeko, igoera onesten duen Ministroen Kontseiluak -halakorik bada- akordioa jakinarazi bezain azkar.
- Aurreko 18.Bi artikuluaaren laugarren paragrafoari dagokionez, udal-autonomiari kalterik egin gabe, 2017ko ekitaldiko* aurrekontuan superabita duten EAEko udalerriei gomendatzen diegu soldata-masaren %0,3ko igoera gehigarria baimen dezaten, dituzten finantza- eta aurrekontu-aukeren arabera. Zenbateko hori langileen artean banatuko da, 18.2 artikuluaaren laugarren paragrafoan aipatutako edo aplikatu ahal diren bestelako lege-formulen bidez. 2017ko ekitaldian aurrekontuko superabitik izan ez duten udaletan, EUDELeK gomendatzen du soldata-masaren %0,2ko igoera egitea.

Bigarren paragrafoari dagokionez, Estatuko Ministroen Kontseiluak, 2018ko uztailaren 13ko bilkuran, uztailaren 3ko 6/2018 Legean jasotako 18.Bi.Bigarren artikuluan jasotako soldata igoera onartu du, hots, %0,25eko soldata-igoera gehigarria jartzea, 2018-07-01etik aurrera eragina izan dezan, administrazio publikoko enplegatuei ordaintzeko.

Aldi berean, Asteasuko Alkate andreak jasotzen dituen ordain sariak %1,75eko igoera izatea proposatu da, azaroaren 17ko 13/2014 Arau Foralaren 5. artikuluan eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75 bis artikuluan jasotakoarekin bat.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 6 (Legarra, Ayerza, Iturbe, Mugika, Usandizaga, Elicegui)
 Kontrako botuak: 0
 Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak

ERABAKI DU

LEHENA. 2018ko ekitaldian, Asteasuko Udaleko langileen ordainsariak %1,75eko igoera izatea, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekin alderatuta, konparatutako bi denboraldien homogeneotasunari dagokionez, hala langileei begira, nola antzinakotasunari begira, 2018. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legeak 18.2 artikuluan jasotako aukerarekin bat etorrira.

Hala, batetik, 2018-01-01etik aurrera, langileen ordainsariak legeak baimentzen duen gehiena igotzea, hau da, %1,5, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

alderatuta; bestetik, %0,25eko soldata-igoera gehigarria jartzea, 2018-07-01etik aurrera eragina izan dezan.

BIGARRENA. 2018ko ekitaldian, Asteasuko Alkate andrearen ordainsariak %1,75eko igoera izatea, azaroaren 17ko 13/2014 Arau Foralaren 5. artikuluan eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75 bis artikuluan jasotakoarekin bat.

Eta beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat ematen du gaueko 19:21 orduak direnean, nik Idazkariak, bertan jasotakoaren akta hau luzatzen dudalarik.

Asteasun, 2018ko uztailaren 27an.

Alkatea

Bitarteko Idazkari-Kontuhartzailea